

**UDALEKO LANGILE ETA KARGU POLITIKOENTZAKO**  
**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO**  
**PRESTAKUNTZA-PROGRAMA – 2017**

**1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO**  
**BERDINTASUNARI BURUZKO OINARRIZKO**  
**KONTZEPTUAK**

**Helburuak**

1. Politika publikoetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspuntuaren inguruko oinarrizko kontzeptuak aztertzea eta bateratzea.
2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planen irismena ulertzea.
3. Genero-ikuspegia aintzat hartzen duen udal-kudeaketaren onurak eta abantailak ezagutzea.

**Edukiak**

- ▲ Sexua - generoa sistema. Generoaren sozializazioa.
- ▲ Oinarrizko estrategiak/kontzeptuak.
  - Zuzeneko eta zeharkako bereizkeria.
  - Segregazio horizontala eta bertikala.
  - Ekintza positiboak.
  - Zeharkakotasuna - genero *mainstreaming*a.
  - Ahalduntzea.
  - Erantzunkidetasuna.
  - Sexuaren arabera banandutako estatistikak.

- ▲ Aukera-berdintasunetik emaitzen berdintasunera. Erronka berriak.
- ▲ Nola egiten da lan berdintasun-planekin?
- ▲ Jardunbide egokiak udal-kudeaketan genero-ikuspuntua gehitzean.

## **Metodologia**

Aktiboa, parte-hartzailea eta taldeka lan egiteko dinamiken, bideoen eta askotariko ikus-entzunezko materialen bitartez egingo den aurkezpen teoriko batean oinarrituta.

Prestakuntzak euskaraz zein gaztelaniaz eskainiko dira.

## **Iraupena eta egutegia**

Ikastaroaren programa 4 ordutan emango da, eta bi saiotan egingo da, bakoitza 2 ordukoa. **Azaroaren 8an eta 10ean 09:00etatik 11:00etara** emango dira. **Udaletxeko prentsa-aretoan** egingo dira saioak.

## 2. BERDINTASUNEN KOMUNIKAZIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

### Helburuak

1. Berdintasuneko gizarte integratzaile baterantz jotzeko hizkuntzaren erabilera aldatu beharra dagoela sentsibilizatzea.
2. Gutxiespeneko hizkuntza baztertua eta emakumeentzako diskriminatzailea erabiltzeak pertsona guztiengan dituen ondorioei buruzko hausnarketarako espazio bat irekitzea.
3. Idatzizko eta ahozko hizkuntzan, euskaraz zein gaztelaniaz, erabilera sexistak eta androzentrikoak hautemateko aukera ematen duten tresnak eskaintzea.

### Edukiak

- ▲ Hizkuntza: isla, bitarteko, gizarte-produktu eta kultura transmititzeko zein sozializatzeko bidea.
- ▲ Sexismo eta androzentrisismo hitzen definizioa.
- ▲ Hizkuntzan sexismoa agerian egoteko mekanismo nagusiak.

- ▲ Udalaren komunikazio-elementuetan (webgunea, memoriak, liburuxkak, gutunak...) hizkuntzaren sexismoa zuzentzeko estrategiak. Gako batzuk euskararen erabileran.

### **Iraupena eta egutegia**

Ikastaroaren programa 4 ordutan emango da, eta bi saiotan egingo da, bakoitza 2 ordukoa. **Azaroaren 14an eta 17an** emango dira **09:00etatik 11:00etara**. Udaletxeko prentsa-aretoan egingo dira saioak.

## **3. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA: KONTZEPTURA HURBILTZEA ETA JARDUTEKO BALIABIDEAK**

### **Helburuak**

1. Sentsibilizazioa emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta berdintasunari dagokionez.
2. Emakumeen aurkako indarkeria-motak eta horien adierazpenak ezagutzea eta identifikatzea.
3. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta arreta emateko existitzen diren baliabideak ezagutzea.
4. INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ARRIGORRIAGAKO EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO PROTOKOLOA aurkeztea.

## **Edukiak**

1. Genero-indarkeria definitzea eta kontzeptualizatzea.
2. Eredu esplikatiboak: generoaren berdintasun eza genero indarkeriaren arrazoi gisa.
  - a. Genero-indarkeriak irautea.
  - b. Tratu txarraren dinamika: indarkeriaren zikloa.
  - c. Genero-indarkeriaren goraldia.
3. Genero-indarkeriak dituen motak.
4. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko gezurrezko sinesmenak eta mitoak.
5. Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak.
6. EAEn, Bizkaian eta udalerrian prebenitzeko eta arreta emateko dauden baliabideak.
7. Indarkeriaren biktima diren Arrigorriagako emakumeei arreta emateko erakundeen arteko protokoloa.

## **Iraupena eta egutegia**

Ikastaroa **azaroaren 24an** emango da, **09:00etatik 13:00etara** udaletxeko prentsa-aretoan.